# Aurrekontu partehartzaileak 2023

## Presupuestos participativos 2023

| Proposamena | Propuesta |
|---|---|
| **1001-Zuhaitz gehiago** | **1001-Más árboles** |
| Durangon arbola gutxi eta hormigoi asko dago. Zuhaitzak behar ditugu, udan gerizpea emango luketenak eta, aldi berean, herriaren ikuspegia leunduko. | En Durango hay muy poco Árbol y mucho cemento... se echan de menos más árboles que den sombra en verano y suavicen la visión del pueblo. |

**Bideragarria da? BAI**

**¿Es viable? SÍ**

**Aurrekontua: 100.000 €**

**Presupuesto: 100.000 €**

### EZAUGARRI TEKNIKOAK | CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

| | |
|---|---|
| **Udal konpetentzia da eta politika publikoekin bat dator?** ¿Es competencia municipal y es acorde a las políticas públicas? | **Bai** \| Sí |
| **Interes orokorrekoa da?** \| ¿Es de interés general? | **Bai** \| Sí |

| Proiektuaren ideia nagusiak | Ideas principales del proyecto |
|---|---|
| Gune urbanoan badaude berdegune eta zuhaitz gehiago jartzeko aukerak. | En la zona urbana existe la posibilidad para dotar de más zonas verdes y arbolado. |
| Hirigintzako eta Garapen Iraunkorreko Batzordeek Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko onartutako ikuspegi estrategikotik abiatuta ezarri zen “Sare Berdea” kontzeptua Durangorako. Herritarrek parte hartzeko prozesuaren ondoren onartutako ikuspegi amankomunean, gune urbanoan espazio libreen eta berdeguneen jarraitutasuna emateko beharra ezarri zen, pertsonek sare horretarako irisgarritasun iraunkorra izan dezaten. | El concepto de “Red Verde” para Durango se estableció a partir del enfoque estratégico aprobado por las Comisiones de Urbanismo y Desarrollo Sostenible para la revisión del Plan General de Ordenación Urbana. En el enfoque común aprobado tras el proceso de participación ciudadana, se estableció la necesidad de dotar de continuidad a los espacios libres y zonas verdes en el espacio urbano, para que las personas tengan una accesibilidad sostenible a esta red. Para ello, |

DURANGO
Garena egiten · Vivir y convivir

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

| | |
|---|---|
| Horretarako, herriko berdeguneak lotzen dituzten oinezkoentzako eta bizikletentzako sareez osatutako sare osasungarri eta berde bat izatea proposatu zen. | se propuso una red sana y verde de redes peatonales y ciclistas que conectan las zonas verdes del pueblo. |
| Horren baitan, “Sare Berdea”-k ezarritako ardatzak aztertu eta zoladuraren zurruntasuna txikituz, gune berdeak handitu, eta zuhaitzen bitartez itzalguneak handitzeko lekuak aukeratu daitezke. Aldez aurretik hautatu beharko diren eremu baten edo gehiagoren obra-proiektua idatzi eta gauzatzeko 100.000 euro bideratu daitezke. | En este sentido, se pueden analizar los ejes establecidos por la “Red Verde” y ampliar las zonas verdes reduciendo la rigidez del pavimento y seleccionar zonas para aumentar la sombra a través de los árboles. Se pueden destinar 100.000 euros para la redacción del proyecto y ejecución de la obra de una o varias zonas que deberán previamente seleccionarse. |

Firmado digitalmente por ZORRAKIN PEREZ IGOR - 30658040Y
Fecha: 2023.07.11 10:59:19 +02'00'